



2.4 DIRU-ITURRIAK

Enpresa batek ondo funtzionatu dezan, diru-iturriak ezinbestekoak dira. Izan ere, enpresak diru-iturriak izan ditzan, irabaziak kostuak baino altuagoak izan behar dira. Irabaziak kostuak baino txikiagoak badira, enpresak ez du diru-iturririk izango. Egoera hori aldatzeko, enpresak gutxiago ekoitzi beharko du.

Gure diru iturriak aldakorra izango dira, jende kopuruaren arabera diru sarrerak altuagoak edo baxuagoak izango dira. Horrez gain, urtean zehar, ez da beti jende kopuru berdina etorriko leku guztietan bezala tenporada altuak eta baxuak edukiko dituelako.

Udaberri eta udan aldean izango da denboraldi altua, tenperatura aproposa delako zuhaitz-etxetakoa garai horietan. Tenporada horretan prezioak igo egingo ditugu, garai horietan bezero asko etorriko direla aurre ikusten dugulako eta hortaz diru gehiago irabaziko dugulako. Horrez gain, asteburuetan prezioak garestiagoak izango dira astean zehar baino.

Denboraldi baxua berriz, neguan eta udazkenean izango da eguraldia ez delako aproposena eta zuhaitz etxeak ez direlako aproposenak tenperatura horientzat. Hortaz, bezeroak erakartzeko prezioak jetsi egingo ditugu jendea erakartzeko eta dirua irabazteko.

Diru kopuru handiena etxeen erreserbek emango digute baina horrez gain, bertako produktuak kontsumitzeko eta ekintzak egiteko diru kopuru gehigarri bat ordaindu beharko da. Km 0ko produktuekin irabazten dugunaren % 20a baserritarrei emango diegu haien produktuak erabiliko ditugulako eta haientzako produktu horiek ekoitzea lan gogorra delako.